

Euskal Herritik mundura

CAF eta Irizar euskal enpresek arrakasta lortu dute nazioarteko merkatuan

Euskal enpresek nazioarteko merkatura jauzi egin dute eta nazioartean lehiatzen duten euskal enpresen artean CAF eta Irizar dira adierazgarrienetakoak. Construcciones Y Ferrocarriles (CAF) enpresak berretsi egin du aurten 1992an hasi eta gero sendotutako nazioarteko merkaturako jauzia. Ez nolana hiko jauzia gainera, CAF erreferentzia baita munduan bere sektorean. CAFek 180.000 milioi pezetako kontratuak lortu ditu 1992an nazioarteko merkatura ireki zenetik.

Aurten CAFek lantegi berri bat ireki du Sao Paulon (Brasil) eta beste bi irekitzeko asmoa du, Estatu batuetan: bata Maryland-en eta bestea Kalifornian. Azken horiek garrantzitsuak izango dira CAFek Washington eta Sacramento metro-etako proiektuak aurrera eramateko. Sao Pauloko lantegiak ere bertako metroko bagoien zati garrantzitsu baten montaje lanak egingo ditu.

CAFek 1.472 milioi pezetako irabaziaz izan zituen iaz: horietatik 577 dibidendoetan banatuko dira eta gainontzeko 894ak, reserbetarako.

Nazioartean lan eta lehiatzeko nahiaren adierazgarri, CAFek aurten 105.000 milioi pezeta balio duten lanak egingo ditu atzerrian, iaz baino %15 gehiago.

Jose Maria Baztarrika CAFeko lehendakariak aurtengo akziodunen batzarrean adierazi zuenez, «gero eta proiektu gehiago egiteak behartu gaitu geure fabrikazioen deslokalizazioa bultzatzera». Izan ere, CAFek hainbat eskaera ditu eskuartean: Renfe, Madrilgo metroa, Kataluniako Generalitatea, Eusko Tren, Valentziako tranbia, Finlandiako Trenbideak, Portugal Trenbideak (bi pisuko 35 bagoi), Igalaterrako Northern Spirit (16 bagoi) eta Washingtongo Metroa (110 bagoi).

• Etorkizun itxaropentsua

CAFeko lehendakariak adierazi zuenez, etorkizunetarako aurreikuspen onak ditu



Aurten CAFek lantegi berri bat ireki du Sao Paulon (Brasil) eta beste bi irekitzeko asmoa du, Estatu batuetan: bata Maryland-en eta bestea, berri, Kalifornian



CAF eta Irizar dira euskal enpresa adierazgarrienetakoak atzerrian.

• Euskal autobusak munduan

Irizar autobus ekoizlea kooperatiba da eta Mondra-

gon Korporazio Kooperatibaren (MCC) barruan dago. Irizar ez da ezaguna Euskal Herrian bakarrik, baita atzerrian ere. Izan ere, Irizarrek lantegiak ditu Txinan, Marokon, Brasilen eta orain Mexikon lantegi berri bat eraikitzen ari dira.

Irizar 1889an sortu zen. Hasiera batean gurdi eta dilijentziak fabrikatzen zituen;

gero ibilbide lokal eta nazionalak egingo zituzten autobusentzako karrozeriak egiten aritu zen eta gaur egun luxuzko autobusak egiten ditu.

44 herrialdetan saltzen ditu autobusak: «Ekialde erdi eta urrunean, Ipar Afrikan, Mediterraneo inguruan eta Brasiletik Hego Amerika guztira», Joxean Aizpuru Iri-

zar lantegiko marketing buruaren esanetan.

Irizarrek 1993an ekin zion nazioarteko jauziari. Europako merkatuan sartzeko ahalginak egin zituzten eta salmentak lau aldiz biderkatu ziren.

Euskal Herritik kanpo Txinan eraiki zuten lehen autobus ekoizpen enpresa, Alsa eta Txinako enpresa batekin batera Tianjin Irizar Coach Ltd joint-venture-a (denboraldi baterako enpresen batasuna) sortuz eta Ormaiztegitik zuzenduz. Txinako lantegian Txina eta Asiarako luxuzko autobusak egiten dituzte, bi egunero.

1996an, berri, Marokon ireki zuten lantegia, Rabaten. «Sektorean presentzia handia duen hango bazkide batekin luxuzko autobusak fabrikatzeko», dio Aizpuru.

Hirugarren joint-venture-a pasa den sortu zuten, Sao Paulon (Brasil), bertako Caio enpresarekin. Momentuz atzerrian dituen enpresen artean txikiena da, baina etorkizunean handiena izatera iritxiko dela uste dute Irizarreko arduradunek. «Brasilgo merkatua Europakoaren neurrikoa baita eta konpetentzia gutxiago dago», dio Joxean Aizpuru.

• Mexikon eraikitzen

Irizar lantegi berria eraikitzen ari da Mexikoko Queretaro hirian. Bertan Century eta Intercentury autobusak ekoiztu nahi dituzte, azarotik aurrera Mexiko, Kanada eta Estatu Batuetako merkatuei erantzuteko.

Irizarrek bost aldiz handitu salmentak 1991 eta 1998 artean eta esportazioak, berri, 17 aldiz. 1991an Irizar krisian zegoen eta 225 langile zituen; gaur egun, ordea, lanpostu kopurua bikoiztu egin du eta eskualdean azpikontrataturako enpresetan 125 lanpostu sortzen lagundu du. 1998an 16.500 milioi pezeta fakturatu zituen, horietatik 9.165 esportazioetan. Horrez gain, aurten Urrezko Q saria jaso du, Enpresa Bikaintasunaren saria.

ARTXIBOKOAK